



# Nire enpresa eta ingurumena

*Legedia, gomendioak, diru laguntzak eta informazio iturriak*



# aurkibidea

Sarrera .....	4
1. Ingurumen arloen eskema eta adibide praktikoa .....	5
2. Lizentziak: Ingurumeneko baimen bateratua, jarduera-lizentzia, irekitze-lizentzia .....	6
3. Ingurumenean eragina duten alderdiak	
Hondarrak .....	10
Ura .....	12
Lurzorua .....	14
Zarata .....	16
Energia .....	17
Atmosfera .....	18
Mugikortasuna .....	20
4. Enpresentzako diru laguntzak .....	21
5. Informazioa eta harremanak .....	24



## Sarrera

**E**npresek hainbat erantzukizun dituzte, eta legezko betebeharrak betetzeaz harantzago doaz. Enpresa bat ezin da gizarteak aurre egiten dien arazo eta erronketatik kanpo geratu; ezta ingurumena zaindu eta iraunkor egitetik ere.

Amurrioko Udaleko Ingurumen Sailak eta Amurrio Bidean tokiko garapen agentziak gida honen bidez oinarrizko nozioak eman nahi dizkiete ekintzaileei edo enpresariei, ingurumen araudia eta izapideak hobeto ulertzeko. Aldi berean, zenbait gomendio ematen dituzte, aurreko paragrafoan deskribatutako erantzukizunak hartzen laguntzeko.

Amurrio Bidean-era egunero etortzen da jende ekintzailea edo enpresariak, enpresa-jarduera berriren bat hasteko edo jarduera berriak gehitzeko asmoz. Etortzen diren hauek gogoia izaten dute eta hasiko diren jarduera horretan jakitun dira, baina ez daukate legelari adituak edo enpresa-kudeaketan maisuak izan beharrik. Askotan arauak, legeak, izapideak, gomendioak eta diru-laguntzak ulertzea zaila izaten da eta negozioari buruz duten ideia garatzea oztopatzen dute. Agiri honen bidez baldintzak ulerterrazagoak izatea nahi genuke, bai eta jarduera ekonomiko berria jartzeko gomendioak eman ere. Gida hau hainbat erakunderekin harremanetan jartzeko agenda izatea ere nahi genuke, erakunde horiek jarduera berriaren garapenean lagungarriak izan baitaitezke. Era berean, dauden laguntzen laburpena ere jarri dugu, euren helburu eta irismenekin batera.

Agiri hau Amurrioko Udaleko Ingurumen Sailak eta Amurrio Bideanek elkarlanean egin dute eta % 50eko laguntza eman du Valora programak, Europako Gizarte Funtsaren Programa Operatiboa 2007-2013k.

# 1. Ingurumen arloen eskema eta adibide praktikoa

**S**ektore berekoak izan arren, jarduera guztiek ez dituzte ezaugarri berdinak ekoizpen prozesuagatik, kontsumitutako gaiengatik, etab. Hori dela eta, litekeena da legedi bera ez ezartzea. Horregatik jarraian dago jarduera bakoitzeko ingurumen alderdi edo arlo garrantzitsuenen eskema orokorra.

JARDUERAK	Lizentzia			Hondakinak			Isuriak			Zarata	Energia	Atmosfera	Mugikortasuna
	Ingurumenerako baimen bateratura	Jarduera-lizentzia	Irekitze-lizentzia	Ez arriskutsuak	Gel doak	Arriskutsuak	Hondakin urak	Industriako hondakin urak	Kutsatutako lurzorua				
Elikagaiak		X	X	X			X	X			*		*
Edizioak arte grafikoak eta pintura jarduerak		X	X	X		X	X		X		*	X	*
Industria kimikoa	X	X	X	X	X	X	X		X		X	X	*
Beste produktu mineral ez metalikoen industria	X	X	X	X	X	X	X			X	X		*
Metalurgia	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	*
Galdaragintza – mekanizatua	X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	*
Ekipo elektriko, elektroniko eta optikoko materialen industria		X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	*
Altzarigintza		X	X	X	X	X	X			X	*		*
Txatarra eta metalezko hondarrak birziklatzea		X	X	X	X	X	X			X	*		*
Ibilgailuak saldu, egin, mantendu eta konpondu		X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	*
Ostalaritza		X	X	X			X			X	*		*
Merkataritza, bulegoak, ile-apaindegiak, etab.		X	X	X			X				*		*

**X** Jarduera bakoitzerako ingurumen arlorik garrantzitsuenetan X bat dago. Esan beharra dago antzeko jarduera garatzen duten enpresek ez dituztela ezaugarri berberak, beraz, taulako datuak orientagarriak dira.

\* Jardueraren garapena arautzeko legedirik ez duten arloak dira, eta gida honetan jarduera iraunkorragoa izateko aholku batzuk ematen dira.



## 2. Lizenziak: Ingurumeneko baimen bateratua, jarduera-lizentzia eta irekitze-lizentzia

Jarduera guztiak lizentzia batzuk behar dituzte abian jarri ahal izateko. Jardueraren ingurumen eraginaren arabera izango dira lizentziok.

**Ingurumeneko baimen bateratua:** Erkidego mailako baimen bateratu honek, ingurumenaren eta gizakien osasunaren babesari dagozkion ondorioetarako soilik, instalazio bat osorik edo zati batean ustiatzen uzten du, beti ere Kutsaduraren prebentzio eta Kontrol Bateratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen xedea eta xedapenak betetzen dituela bermatzeko beharrezkoak diren neurri batzuen pean.

**Jarduera-lizentzia:** Jarduera bat instalatzeko, zabaltzeko edo berritzeko udal lizentzia.

### 2. urratsa. Lizentziak tramitatu.

Jarduera edo instalazioa 16/2002 Legeko I. eranskinean jasota dago (BOE 157, 2002/02/07) <a href="http://www.boe.es/boe/dias/2002/07/02/pdfs/A23910-23927.pdf">http://www.boe.es/boe/dias/2002/07/02/pdfs/A23910-23927.pdf</a>	Ingurumeneko baimen bateratuaren tramitea
Jarduera edo instalazioa 3/1998 Legeko II. eranskinean dago (EHAA 59, 1998/03/27) eta ez dago 165/99 Dekretuko I., II. eta III. eranskinetan (EHAA 59, 1999/03/26) <a href="http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&amp;f=19980327&amp;s=1998059">http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&amp;f=19980327&amp;s=1998059</a>	Sailkatutako jarduera eta irekitze-lizentziaren tramitea.
Jarduera edo instalazioa 165/1999 Dekretuko I., II. edo III. eranskinean dago. (EHAA 59, 1999/03/26) <a href="http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&amp;f=19990326&amp;s=1999059">http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&amp;f=19990326&amp;s=1999059</a>	Salbuetsitako Jarduera eta irekitze-lizentziaren tramitea

Lizentziak tramitatzeko tasak hauek dira:

Irekitze-lizentzia: Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) urteko kuotagatik ordainduko litzatekeenaren % 150.

Obra-lizentzia: Egikaritze materialaren aurrekontuaren % 6.

**Irekitze-lizentzia:** Jarduera bat abian jartzeko lizentzia.

**Obra lizentzia:** Errehabilitazio, erreforma, obra berriak baimentzen dituen lizentzia.

### 1. urratsa. Aurre-kontsulta.

Amurrioko Udalean (Ingurumen Sailean) aurre-kontsulta bat egin jarduera berriari buruz, jardueraren proiektuak (kokapenak, jarduera motak...) Udal Ordenantzak eta Hirigintzako Planeamendua betetzen dituela ikusteko.

## Ingurumeneko baimen bateratua izapidetu behar duten jarduerak.

Kutsatzeko ahalmen handiko jarduerak Ingurumeneko baimen bateratuaren mende daude; kutsadurari aurrea hartu beharko diote jatorrian bertan, batez ere, baliabideak kontuz kudeatu beharko dituzte eta hondakinak eta atmosferarako, uretarako eta lurrerako isurketak ahalik eta gehien murriztu, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legean (BOE 157, 2002/07/2) ezarritakoaren arabera. Zehatz esateko, Lege horretako I. eranskinekoak.

Adibidez: Industria kimikoak, metalak ekoiztu eta eraldatzekoak, etab.

**PROZEDURA:** Aurrez aldeko hirigintzako udal txostena izanda, Ingurumen Sailburuordetzan dagokion **eskaria** eta **oinarrizko proiektua** eman behar dira 16/2002 Legeko 12. artikuluan adierazitako agiriekin. Ezin da obra-lizentziarik eskuratu, udalak lizentzia behin betirako ebatzi arte.

### ESKUMENAK:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetza.

- Izapidetzeko prozesua koordinatu.
- Informazio publikoa.
- Ebazpen proposamena.
- Ingurumeneko baimen bateratua eman.

Udala:

- Hirigintzako aurre txostena igorri, instalazioaren bateragarritasunari buruz.
- Tramitazioan txostenak-alegazioak egin, Ingurumen Sailburuordetzan.
- Jarduera- eta obra-lizentzia eman (alkateak).
- Irekitze-lizentzia eman.

## Sailkatutako jarduera lizentzia izapidetu behar duten jarduerak

Sailkatutako jarduerak esaten zaie eta oztopoak eragin ditzaketen jarduerak dira, pertsonentzat edo horien ondasunentzat arrisku-tsuak izan daitezke edo ingurumena kaltetu dezakete.

Euskal Herriko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko II. eranskinean datoz (EHAA 59, 1998/03/27) eta ez datoz martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuko I., II. eta III. eranskinetan.

Adibidez: Tabernak, jatetxeak eta ostalaritzako jarduerak, oro har, 500 m<sup>2</sup> baino handiagoko dendak.

Sailkatutako jarduerak salbuetsitako jarduera- eta irekitze-lizentzia behar dituzte:



## **Jarduera-lizentzia:**

### **PROZEDURA:**

Aurkeztu udaletxean dagokion **Eskaria, Jardueren Proiektua** eta **jarduera deskribatzen duen Memoria**, [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/eu/contenidos/informacion/activ\\_clasificadas/eu\\_1052/indice\\_e.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/eu/contenidos/informacion/activ_clasificadas/eu_1052/indice_e.html) balizko ingurumen eraginak eta horiek saihesteko hartu beharreko neurri zuzentzaileekin. Obra edo egokitzapena egin behar bada, obraren proiektua ere aurkeztu. Ezin da obra-lizentzia lortu, Udalak jarduera-lizentzia eman arte.

Txosten teknikoak eta beharrezko informazio izapideak egin ondoren, neurri zuzentzaile batzuk ezarriko dira jardueraren ingurumeneke eragina saihesteko edota murrizteko.

### **ESKUMENAK:**

Udala:

- Tramitazio prozesua koordinatu.
- Lizentzia eman (alkateak).
- Informazio publikoa.

Osasun arloko Lurralde Ordezkaritza:

- Aurretiko osasun-txosten loteslea egin.

Ingurumeneke Lurralde Ordezkaritza:

- Hiri-lurzoru industrial eta ez urbanizagarriko neurri zuzentzaileen txosten loteslea egin aurrez.

Foru aldundia:

- Egoitzazko hiri-lurzoruko neurri zuzentzaileen txosten loteslea egin aurrez.

Neurri zuzentzaileekin txostena egin ondoren, jarduera-lizentzia emango da eta ondoren obrak egitekoa. Horretarako, aurrez obrak egiteko tasak ordainduko dira (egikaritze materialeko aurrekontuaren % 6) eta obra hasiko da berariazko neurri zuzentzaileak ezarrita.

## **Irekitze-lizentzia:**

### **PROZEDURA:**

Obraren amaiera udalera eramango da; jarduera-lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak bete direla justifikatuko da, baita eskatutako gainerako agiriak ere (instalazioen ziurtagiria, mantentzeko kontratuak, etab.); eta udal teknikariaren ikuskapena eskatuko da, neurriak bete direla ziurta dezan.

### **ESKUMENA:**

Udala:

- Udal teknikariaren ikuskapena.
- Lizentzia eman (alkateak).

## Sailkatutako jarduera lizentzia behar ez duten jarduerak

Ingurumenean eragin esanguratsurik sortuko ez duten jarduerak dira eta sailkatutako jardueren lizentzia lortu beharrik ez dute 3/98 Legearen arabera, hala ere, ez-sailkatutako jardueren lizentzia lortu beharko dute: hotelak, ile-apaindegiak, arropa-denda txikiak, 500 m<sup>2</sup> baino gutxiagoko saltokiak, apaindegiak, bulegoak (bankuetakoak, aseguruetakoa, higiezinetakoa, bidaiia-agentziak, aholkularitza-agentziak eta antzekoak), honelako leku batean daudenean: etxebizitzaren beheko solairuetan, eraikin libreetan edo etxebizitzaren eraikineko solairuan sarrera independentearekin.

Martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuko I., II. eta III. eranskinetan zehaztutako jarduerak dira (EHAA 59, 1999ko martxoak 26).



## Ez sailkatutako jarduera eta irekitze-lizentzia behar dituzte:

### PROZEDURA:

Udalean aurkeztu behar da dagokion **eskaria jardueraren proiektuarekin** <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/1999/03/9901426a.pdf> batera. Obra edo egokitzapenen bat egin behar izanez gero, obraren proiektua ere ekarri behar da. Beharrezko txosten teknikoak eta informazio-tramiteak egin ondoren, jardueraren eta obraren lizentzia emango da, neurri zuzentzaile batzuk ezarrita.

Tasak ordaindu (egikaritze materialaren aurrekontuaren % 6).

Obrak amaitu eta neurri zuzentzaileak ezarritakoan, Obraren Amaierako Ziurtagiria aurkeztu, ezarritako neurri zuzentzaileak bete direla adieraziko da eta gainerako agiriak ere aurkeztu beharko dira. Udal teknikariaren ikuskapena ere eskatu beharko da, irekitze-lizentzia lortzeko.

### ESKUMENA:

Udala:

- Instalazioak ikuskatu.
- Irekitze-lizentzia eman.

Informazio gehiago:

[http://www.amurrio.org/es/article\\_services\\_Servicios\\_ma-licencias-actividad.html](http://www.amurrio.org/es/article_services_Servicios_ma-licencias-actividad.html)

### 3. Ingurumenean eragina duten alderdiak

#### HONDAKINAK

Hondakina da bota nahi dugun edo botatzeko beharra dugun objektu edo substantzia oro.

#### Hiri hondakinekin pareka daitezkeen hondakin industrialak:

Jardueraren esparruan egin arren, ekoizpen-jarduerari zuzenean lotuta ez daudenak dira. Gure etxeetan sortzen diren hondakinen ezaugarri berdinak dituzte: elikagai-hondarrak, papera-kartoia...

**Industriako hondakin geldoak:** Hondakin solido edo oretsuak, eraldaketa fisiko-kimiko edo biologiko esanguratsurik izaten ez dutenak; hau da, denborarekin aldatzen ez direnak: obra-hondakinak, adreiluak... Ez dira toxiko edo arriskutsutzat hartzen.

**Hondakin arriskutsuak:** Ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuan (BOE 160, 1997/07/05) onartutako hondakin arriskutsuen zerrendan daudenak dira, baita horiek eduki dituzten ontziak ere. Hondakin arriskutsuak identifikatzeko errazena, Hondakinen Europar Katalogoa (HEK) kontsultatzea da, hondakin arriskutsuek izartxo bat baitute.

[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4892/es/contenidos/informacion/resid\\_peligrosos/es\\_1003/adjuntos/cer.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4892/es/contenidos/informacion/resid_peligrosos/es_1003/adjuntos/cer.pdf)

#### Beharrezko izapideak eta kudeaketak

#### Hiri hondakinekin pareka daitezkeen hondakin industrialak

Hiri hondakinen kudeaketa honakoen bidez egin daiteke:

- Udala (Udalaren edukiontzia eta Garbigunea).
- Baimendutako kudeatzaileak.

[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4892/eu/contenidos/informacion/resid\\_no\\_peligrosos/eu\\_1005/no\\_peligrosos\\_e.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4892/eu/contenidos/informacion/resid_no_peligrosos/eu_1005/no_peligrosos_e.html)

#### Industriako hondakin geldoak

Hondakin geldoak ekoizten badituzu, honakoa egin behar duzu:

Hondakin geldoen ekoizle aitormena, otsailaren 24ko 29/2009 <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/bopv2/datos/2009/03/0901524a.pdf>

Dekretuko VI. eranskinaren arabera. Horrek hondakinak nola kendu arautzen du, zabortegetan biltegitratuta eta betelanak eginda.

Hondakin geldoen kudeaketa garraiolarien, kudeatzaileen edota baimendutako zabortegetien bidez egin behar da.

Hondakin geldoak kentzeko behar diren kudeaketarako izapideak dira:

Hondakin geldoen zabortegetira kendu behar izanez gero, agiri hauek behar dira:

- OA (Onartze-agiria).
- KJA (Kontrol eta jarraipen agiria).

Kontsultatu otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua, hondakinak zabor-gegiatan biltegitratzea eta betelanak egitea arautzen duena. (EHAA, 54. zk., 2009ko martxoaren 18koa).

<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/bopv2/datos/2009/03/0901524a.pdf>

### Hondakin arriskutsuak:

Urtean 10.000 kg hondakin arriskutsu baino gehiago sortzen baduzu:	Hondakin arriskutsuen ekoizle lizentzia
Urtean 10.000 kg hondakin arriskutsu baino gutxiago sortzen baduzu:	Hondakin arriskutsuen ekoizle txiki bezala eman izena.

Izena emateko: Ingurumeneko Sailburuordetza. Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Hondakin arriskutsuen kudeaketa egin behar da.

- Soilik hondakin arriskutsuen kudeatzaile baimenduen bidez.

Kontsultatu EAEn baimenduko kudeatzaileen zerrenda.

[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4892/es/contenidos/informacion/resid\\_peligrosos/es\\_1003/adjuntos/gestores.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4892/es/contenidos/informacion/resid_peligrosos/es_1003/adjuntos/gestores.pdf)

Kentzeko izapideak: Kasu guztietan, kentzeko agiri hauek behar dira:

- OA (Onartze-agiria).
- KJA (Kontrol eta jarraipen agiria).

Kontsultatu uztailaren 20ko 833/1998 Errege Dekretua, (BOE 182, 1998ko uztailaren 30a).

<http://www.boe.es/boe/dias/1988/07/30/pdfs/A23534-23561.pdf>

### Praktika onak

Garatuko den jardueraren arabera, sortuko den hondakin mota eta kopurua aldatu egingo da.

Jarduera batzuek hondakin asko sor ditzakete, eta horrelakoetan funtsezkoa da jarduera hasi aurretik hondakinen kudeaketa planifikatzea eta minimizatzea.

Hauek dira hondakinen kudeaketa hobetzeko kontuan izan beharreko alderdietako batzuk:

- Sortuko duzun hondakin mota.
- Zeinek kenduko lituzkeen (udalak, baimendutako kudeatzaileak).
- Kudeaketaren gastuak.
- Hondakin arriskutsu eta geldoak kentzeko beharrezko agiriak.
- Jardueraren proiektuan planifikatu egin behar da nola jaso eta biltegitratuko dituzun hondakinak.
- Hondakinak kudeatzeko gastuak produktuaren amaierako prezioan sartu.
- Eskura dauden teknologiarik onenak (MTDak) erabili.

Gastuak gutxitzeko, kontuan izan zenbat eta hondakin gehiago sortu, orduan eta garestiagoa izango dela kudeaketa. Horrenbestez:

- Murriztu sortutako hondakin kopurua.
- Berrerabili hondakinak ahal den adina aldiz.
- Birziklatu sortutako hondakinak, lehengai edo energia berreskuratzeko.

Gastuak minimizatzeko zenbait aholku dituzu jarraian.

- Hondakinak sortzeari aurrea hartu, ekoizpen garbiaren bidez. Eusko Jaurларitzak Teknologia Garbien Euskal Zerrenda argitaratu du eta ingurumena hobetzeko ekipoen zerrenda dago. Horiek erosiz gero, % 30eko zerga kenkaria dago.

12

<http://www.ihobe.net/Publicaciones/Ficha.aspx?IdMenu=750e07f4-11a4-40da-840c-0590b91bc032&IdGrupo=PUB&IdAno=2004&IdTitulo=025&Cod=88a563ec-d90c-46e3-89da-420c5479d71d>

- Zenbat eta gehiago banatu zure hondakinak, orduan eta ekonomikoagoa izango da kentzea; eta zenbat eta nahastuago egon, orduan eta handiagoa izango da gastua.
- Lehengai arriskutsuen ordez, arrisku txikiagoko beste batzuk erabili, hondakin bat zenbat eta arriskutsuagoa izan, orduan eta gastu handiagoa izango baitu.
- Ontziratutako produkturen bat baldin baduzu, ongi aukeratu ontzi mota. Berrerabil daitezkeen ontziak erabili eta ahalik eta materialik gutxien erabili beti.

## URA

Jarduera guztiek ura kontsumitzen dute eta, era berean, ur zikinak sortzen dituzte.

Kontsumitutako ur kopurua eta isuri mota aldatu egingo da, jarduera motaren arabera.

## Beharrezko izapideak eta kudeaketak

### Hornikuntza

Hornikuntza hauek behar izanez gero, lizentzia eta baimen hauek beharko dituzu:

#### *Udal sarea:*

Sarera konektatzeko baimena, jarduera- edo Irekitze-lizentzian ematen da.

Lizentziarako harremanak: Amurrioko Udala.

#### *Jabari publiko hidraulikoa:*

Jabari publiko hidraulikoan sartzeko lizentzia edo Uren Erregistroan izena eman.

Lizentziarako harremanak: URA, Uraren Euskal Agentzia eta Iparraldeko Ur Konfederazioa.

### Isurketak

Isurketa hauek egin behar izanez gero, lizentzia eta baimen hauek beharko dituzu:

**Udal kolektorea:** Udal kolektorera isurtzeko lizentzia, jardue-  
ra-lizentzian ematen da.

Lizentziarako harremanak: Amurrioko Udala.

**Ubide publikoa:** Ubide publikora isurtzeko lizentzia.

Lizentziarako harremana: Iparraldeko Ur Konfederazioa.

## Praktika onak

Egin hasieratik uraren kontsumo eta kudeaketa iraunkorraren aldeko apustua, ingurumenerako onuragarria izateaz gain, zure enpresaren gastuak murrizten baititu.

### Ur-horniketa:

Zure enpresa sortzerakoan, garrantzitsua da ur-horniketa nola egingo duzun jakitea eta planifikatzea, horretarako, kontuan izan behar duzu:

- Jarduera mota.
- Instalazioen kokapena.
- Kontsumo-uren jatorria honakoa izan daiteke:
  - Udal sarea: sareak hornitutako ur edangarria.
  - Autohornikuntza: iturri naturala.
  - Jabari publiko hidraulikoa (JPH): euri-urak, putzuak, iturriak, ubideak...

## Hondakin uren saneamendua

Hondakin uren saneamendua da planifikatu beharreko beste gauzetako bat; horretarako, beharrezkoa da zer motatako isurketak egingo ditugun jakitea:

Komuneko urak edo ur beltzak: komuneko, sukaldeko... urak.

Euri urak, kontrolatu, ubideratu eta banatu egin beharko ditugu.

Uraren gastuak txikitzeko aholkuak:

- Murriztu uraren kontsumoa. Zenbat eta ur gutxiago alferrik galdu, orduan eta hondakin ur gutxiago sortuko duzu.
- Berrerabili euri urak.
- Jarri txorrotak automatikoki ixteko moduan, galerarik ez egoteko.
- Txikitu komuneko zisternen gaitasuna.
- Instalazioak eta ekipoak behar bezala mantendu eta kontrolatu, beharrezkoa ez den kontsumoa ekiditeko.
- Aukeratu merkatuko teknologiarik onena. Kontsultatu Jarduera mota bakoitzerako ekoizpen garbirako gida eta IHOBEn Teknologia Garbien Zerrenda.

<http://www.ihobe.net/Publicaciones/Ficha.aspx?IdMenu=750e07f4-11a4-40da-840c-0590b91bc032&IdGrupo=PUB&IdAno=2004&IdTitulo=025&Cod=88a563ec-d90c-46e3-89da-420c5479d71d>

## LURZORUA

Lurzorua lurrazalaren zati solidoa da, arroka amatik hasi eta azalera artekoa, hemen sartzen dira fase likido eta gaseosoaz gain, bertan bizi diren organismoak ere. Funtzio naturalak eta erabilerakoak egiteko gaitasuna du.

**Kutsatuta egon daitekeen lurzoria:** 1/2005 Legeko II. eranskinean adierazitako jardueraren bat egin den edo egiten den lurzoria.

[http://www.euskadi.net/cgi-bin\\_k54/bopv\\_20?c&f=20050216&s=2005032](http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20050216&s=2005032)

I. eranskina 9/2005 Errege Dekretua.

<http://www.boe.es/boe/dias/2005/01/18/pdfs/A01833-01843.pdf>

**Aldatutako lurzoria:** Ebaluazioko balio adierazleak gainditzen dituzten substantzien kontzentrazioak dauden lurzoriak, osasunarentzako eta ingurumenarentzako kaltegarria izan gabe.

**Kutsatutako lurzoria:** Ebaluazioko balio adierazleak gainditzeaz gain, arriskutsuak izan daitezkeen substantzien kontzentrazioak.

## Beharrezko izapide eta kudeaketak

### 1. urratsa. Aurrez udalean kontsultatu.

Jarduera- edota irekitze-lizentzia lortzeko enpresaren kokapena egokia den kontsultatzerakoan, kutsatuta egon daitekeen lurzori bezala inbentariatuta ote dagoen jakin.

### 2. urratsa. Kutsatuta egon daitekeen lurzori bezala inbentariatuta badago.

Kutsatuta egon daitekeen lurzori bezala inbentariatuta badago, lizentziak, baimenak eta jarduera jartzeko gaitasuna ematen duten bestelako ebazpenak Lurraren Kalitatearen Aitormenaren mende geratzen dira.

Kontsultatu: Otsailaren 4ko 1/2005 Legea (EHAA 32, 2005/02/16)

[http://www.euskadi.net/cgi-bin\\_k54/bopv\\_20?c&f=20050216&s=2005032](http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20050216&s=2005032)

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua (BOE 15, 2005/01/18)

<http://www.boe.es/boe/dias/2005/01/18/pdfs/A01833-01843.pdf>

Lurzoriaren kalitatea aitortzeko prozeduran, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzan aurkeztu beharko dituzu dagozkion ikerketa txostenak, lurzoriaren kalitatea ikertzen aditua den erakunde batek eginda.

1. Aldez aurretiko ikerketa: Ikerketa horretan lurra kutsatuta egon daitekeen zantzuak baldin badaude, Aztertzeko Ikerketa egin behar da.
2. Aztertzeko ikerketa: Dauden substantzia kutsagarrien emaitzek, ebaluazioko balio adierazleak gaindituz gero, ikerketa zehatza egin beharko da.
3. Ikerketa zehatza: Beharrezko izapideak egindakoan, Ingurumen Sailburuordetzak lurzoria kutsatuta, aldatuta edo aldatu gabe dagoela adieraziko du.

Lurzoruaren Kalitatearen Aitorpena Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio erregistroan erregistratu beharko da. Lurzoru bat kutsatuzat aitortuz gero, Jabego Erregistroan ere bazterreko oharra jarriko zaio.

### 3. urratsa. Lurzorua kutsatuta edo aldatuta dagoela aitortuz gero.

- Kutsatutako lurzoruak berreskuratzeko neurriak hartuko dira:  
Kutsaduraren jatorria 3/98 Legea baino lehenagokoa bada: Aurreikusitako erabilerarekin bateragarriak diren balioak lortu arte berreskuratu.  
Kutsaduraren jatorria 3/98 Legea baino geroagokoa bada: Lurzoruaren baldintzak aurreko egoeran berrezarri.
- Aldatutako lurzoruak berreskuratzeko neurriak hartuko dira:  
Kutsaduraren jatorria 3/98 Legea baino geroagokoa bada: Lurzoruaren baldintzak aurreko egoeran berrezarri.

### 4. urratsa: Kutsatutako/aldatutako lurzorua berreskuratu dela kreditatu.

Kutsatutako edo aldatutako lurrak berreskuratzeko neurriak hartutakoan, emaitzen eta gainerako lurren kalitatearen berri eman beharko duzu. Lurzoruaren kalitatea ikertzeko kreditazioa duen erakunde baten txostena aurkeztu beharko duzu.

Lurzorua berreskuratu dela kreditutakoan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak ebazpen bat emango du adieraziz lurzorua jada ez dela horrelakoa eta Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroan emango du izena eta Jabego Erregistroko bazterreko oharra kenduko da (azkeneko hau kutsatuta aitortutako lurzoruen kasuan).



## ZARATA

Zarata nahi ez den soinua da.

### Beharrezko izapide eta kudeaketak

Euskal Autonomia Erkidegoan lege aldetik zuloa dago, ez baitago zaratei buruzko berariazko legerik.

Jarduera-lizentzian ezarritako Neurri Zuzentzaileen Txosten Kalifikatuan (3/1998 Legeko II. eranskinean dagoen jarduera edo instalazioa) daude zure jardueran baimendutako zarata mailak.



### Praktika onak

Bazenekien...

zaratak osasun arazoak ekartzen dituela?

Adibidez: Ondoeza, estresa, lo egiteko gorabeherak, arretaren galera, entzuteko gaitasunaren galera, komunikatzeko zailtasuna.

Eta osasun arazo hauek gastuak dakartzatela?

Adibidez: Osasungintzan, ekoizpen txikiagoari lotutako gastuak, laneko istripuei lotutakoak...

Horregatik, beharrezko intsonorizazio neurriak hartzeko gomendatzen dizugu, kanpoan zarataren maila behar bezalakoa izan dadin. Funtzionatzen hasitakoan oso garestia da intsonorizatzeko neurriak hartzea, baita isunak ordaintzea ere eta, gainera, herritarren kezak jasoko dituzu.

Lanerako ekipoak edo tresnak erosterakoan, kontuan izan zer zarata egiten duten.

Egin lanpostuen arriskuen ebaluazioa eta hartu arriskuak kentzeko edota murrizteko beharrezko neurriak.

## ENERGIA

**Ohiko energia iturriak:** jatorri fosil eta mineraleko erregaiak. Petrolio, gasa, ikatza, uranioa. Energia iturri hauek erabiltzeak ingurumen arazo larri eta globalak ditu berekin.

**Energia iturri berriztagarriak:** Egungo energiak ordezkatzeko erabiltzen dira, gutxiago kutsatzen baitute eta berritzeko gaitasuna baitute: eguzkia, ura, haizea...

### Praktika onak

Bazenekien...

... kontsumitutako energiaren % 80 baino gehiago iturri ez berriztagarrietakoa dela eta agortu egin daitezkeela (ohiko energia iturriak)?

... munduko biztanleriaren % 20k kontsumitzen duela planetan sortutako energia baliabideen % 80 baino gehiago?

Hauek dira zure enpresa sortzean kontuan izan beharreko gomen-dioetako batzuk:

- Ahalik eta gehien aprobe txatu argi naturala (leiho, argizulo... asko jarri).
- Kontsumo baxuko bonbillak edo fluoreszenteak aukeratu.
- Areto bakoitza bertan egingo den lanaren arabera argizatatu.
- Tenporizadoreak edota presentzia hautematen duten pizgailuak jarri pasabideetan.

- Aurrerapen teknologikoezko berogailua jarri, beharrezko energia besterik ez kontsumitzeko (termostatoak, tenporizadoreak...)
- Galdara behar izanez gero, eraginkortasun energetiko handikoa jartzea kontuan izan.
- Leihoetan kristal bikoitza jarri.
- Kanpora ematen duten atea automatikoki ixten direla jarri, neguan beroa gal ez dadin.
- Kontsumo baxuko eta eraginkortasun energetiko handiko ekipo elektrikoak erosten saiatu.
- Energia alternatiboren bat jartzeko aukera aztertu: eguzki plaka fotovoltaikoak edo termikoak...

Kontsultatu IHOBEn argitaratutako liburua, «Focus, ingurugiroko eraginkortasun energetikorako enpresentzako gidaliburua»

[www.ihobe.net](http://www.ihobe.net)

Gastuak murrizteko ideiak

- Itzali argiak, behar ez dituzunean.
- Leihoak aldiro garbitu.
- Itxi atea eta leihoak, beroa ez galtzeko.
- Itzali ekipo elektrikoak, erabiltzen ari ez zarenean.
- Ekipo elektrikoak ongi mantendu.

## Ausartu energia berriztagarriekin

Energia alternatiboren bat jartzeko aukera aztertu. Zuretzat eta zure inguruarentzat onuragarria izango da!

Hauek dira gogoan izan ditzakezun energia berriztagarrietako batzuk:

**Eguzki energia termikoa:** Eguzki erradiazio zuzenean bero bihurtzen da. Lortutako bero hori komuneko ur beroa izateko eta bergailurako erabil daiteke, besteak beste.

**Eguzki energia fotovoltaikoa:** Eguzki erradiazioa argindarra ekoizteko erabiltzen da zuzenean.

**Energia eolikoa:** Haize-errotek haizea zuzenean aprobetxatzen dute funtzionatzeko.

**Biomasa:** Basoko eta nekazaritzako hondarren aprobetxamendu energetikoa.

Baterako sorkuntza teknika oso eraginkorra da eta energia aurrezten da; izan ere, baterako sorkuntzaren bidez, prozesu berean, energia termiko erabilgarria (bero erabilgarria) eta energia elektrikoa edota mekanikoa sortzeko gai da. Hori guztia, erregai bakar batetik abiatuta lortzen du (gehienetan gas naturala, baina erregai alternatiboak ere erabil daitezke).

## ATMOSFERA

Atmosfera Lurraren inguruan dagoen gas geruza da eta grabitateak eusten dio. Gas geruza honek gehieneko dentsitatea du lurrazaletik gertu eta hortik aldendu ahala meheago da.

Atmosferaren kutsadura da airean substantziaren bat (fase solido, likido edo gaseosoan) ohiz kanpoko kopuruan agertzea, hori inguruarentzat kaltegarria bada.

Atmosferaren kutsaduraren ondorio nagusiak hauek dira:

- Klima aldaketa
- Euri azidoa
- Ozono geruza suntsitu
- Giza osasunean eraginak
- Landareetan eraginak
- Eraikinetan eraginak
- Ikusmenean eraginak

## Beharrezko izapide eta kudeaketak

34/2007 Legearen arabera **atmosfera kutsa dezaketen jarduerak** dira beraien izaera, kokapena edo erabilitako prozesu teknologikoa direla-eta kutsadura iturri direnak eta kontrol eta jarraipen erregimen zorrotza behar dutenak.

**1. urratsa:** Zure instalazioko jarduera nagusia 34/2007 Legeko jarduera eremuaren barruan al dagoen ikusi, IV. eranskineko katalogazioko mailaren batean identifikatuta.

<http://www.boe.es/boe/dias/2007/11/16/pdfs/A46962-46987.pdf>

**2. urratsa:** Zure instalazioan atmosferara isurtzen duten gune guztiak (konfinatuak eta barreiatuak) identifikatu. Gune bakoitza banaka sailkatu katalogoan.

**3. urratsa:** Zure jarduera legeztatzea eskatu (dagokion lizentzia lortu), atmosfera kutsa lezakeen jarduera bezala. Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailburuordetzan.

[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3614/es/contenidos/autorizacion/apca/es\\_aire/indice.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3614/es/contenidos/autorizacion/apca/es_aire/indice.html)

**4. urratsa:** Desklasifikazioak. Atmosferara igortzen duen gune bat ez sistematikoa izan daiteke, horrelakoetan desklasifikazioa eskatuko da. Ez sistematikotzat hartzeko, Atmosferaren Giroa Babesteko 38/197 Legea garatzen duen otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuko 42. artikuluan deskribatutako bi funtzionamendu-baldintza bete beharko ditu; hau da, plantako funtzionamenduaren % 5 baino gutxiagok funtzionatu behar du eta inoiz ez du funtzionatu behar urtean 12 aldiz baino gehiago eta bakoitzean gehienez ordubete.

## Praktika onak

- Atmosfera kutsatzeko ahalmen txikia duten labeak eta galdarak erabili.
- CFC (kamera frigorifiko edo errefrigeraziozkoa) duten tresnen ordez (izozkailuak, aerosolak, aire girotua, etab.) kloro konposaturik ez duten beste batzuk jarri.
- Hodi fluoreszenteak behar bezala biltegiratu, apurtuz gero argona eta merkurioa isuri baitezakete.
- Halonik gabeko itzalgailuak erabili.
- Atmosferarako isurketen mugak bete, horretarako, erauzketa ekipoak filtro egokiekin erabili eta funtzionatzeko egoera egokian mantendu.
- Gasak erauzteko, tratatzeko eta arazteko sistema ezarri.
- Zaratak txikitu zarata gutxiko ekipoak eta tresnak erabilia eta behar bezala mantenduta, gainera, soilik behar den denbora horretan bakarrik eduki piztuta.
- Ekipoek zarata handia ateratzen badute, ordezkatu, edo metodo alternatiboak erabili eta dituzun ekipoek hobeto funtziona dezaten saiatu.

## MUGIKORTASUNA

Mugikortasun iraunkorra: Garraioa da atmosfera kutsatzeko iturriarik nagusienetakoa. Enpresa muntatu aurretik, hasiera-hasieratik mugikortasuneko ohitura iraunkorrek sustatu ote ditzakegun aztertzea komeni da.

### Praktika onak

Bazenekien...

... hiriko kutsaduraren % 60 motordun ibilgailuek sortzen dutela?

... autobusak auto partikularrek baino 15 aldiz energia gutxiago kontsumitzen duela?

Garraio publikoa erabilia, urtean 127 litro gasolina gutxiago kontsumitzen dituzula?

Enpresa bat sortzerakoan, mugikortasun iraunkorra sustatu dezakezu, alderdi hauek kontuan izanda:

- Bideragarria den guztietan, enpresako autobusa jarri.
- Jantoki txiki bat egokitu, langileek jatera etxera joan beharrik ez izateko.
- Garraio publikoan, bizikletan edo oinez joan daitekeen tokian jarri enpresa.
- 50 langile baino gehiago badituzu, enpresaren mugikortasun plana diseinatu.

Gastuak murrizteko ideiak

- Ahal den guztietan garraio publikoa erabili, merkeagoa da eta gutxiago kutsatzen du.
- Ahal den guztietan bizikleta erabili, ez du kutsatzen, isila da eta trafikoa arintzen laguntzen du.
- Motordun ibilgailu bat erosi behar baduzu, informatu eta erregai gutxien behar duena aukeratu.
- Autoa beste batekin edo batzuekin partekatu.
- Distantzia laburretan ez erabili autoa.



## 4. Enpresentzako diru-laguntzak

- Izena:** Zerga kenkariak.
- Kontzeptua:** Teknologia garbien ekipamenduetan inbertsioa, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren arabera.
- Norentzat:** Enpresa mota guztientzat.
- Kopurua:** Sozietateen gaineko Zergako % 30eko dedukzioa.
- Adibidez:** Koipegabetzko bainuetarako olioia banatzekoa erosi, margotzeko kabinetako airea birzirkulatzeko sistemak, disolbagariak birziklatzeko ekipoak, pistola mistoa, etab.

<http://www.ihobe.net/Paginas/Ficha.aspx?IdMenu=8a39a2cd-19fc-48d7-8a0e-ba3b4b0c2237>

- Izena:** Ingurumena babesteko inbertsioa.
- Kontzeptua:** Ekipo eta azpiegituren inbertsioa.
- Norentzat:** Edozein pertsona fisiko edo juridiko, erakunde eta elkarte publikoak izan ezik.
- Kopurua:** Gehienez % 50-30 edota 200.000 €.
- Adibidez:** Materialak berrerabili eta birziklatu, lurren kutsadura kendu, ingurumen kudeaketa sistemak ezarri, etab.

[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-orokorra/eu/contenidos/ayuda\\_subvencion/1560/eu\\_4551/eu\\_17019.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-orokorra/eu/contenidos/ayuda_subvencion/1560/eu_4551/eu_17019.html)

- Izena:** ICO Inbertsio Iraunkorra.
- Kontzeptua:** Ingurumen proiektuak. Eraginkortasun energetikoa, Eko-berrikuntza, hondakinen tratamendua eta kudeaketa integrala, uren kudeaketa, mugikortasun iraunkorra, energia berriztagarriak.
- Norentzat:** Autonomo, enpresa eta erakundeentzat.
- Kopurua:** % 100era arteko finantzazioa.
- Adibidez:** Mugikortasun industrialeko planak egin, industri pabilioiko teilatuan eguzki energia fotovoltaikoaren planta ezarri, euri-ura hartu eta berrerabili, etab.

[http://www.icodirecto.es/webcomercial/portal/empresas/inversion/colaboradoras/index.html?prod=/empresas/inversion/colaboradoras/producto\\_0002](http://www.icodirecto.es/webcomercial/portal/empresas/inversion/colaboradoras/index.html?prod=/empresas/inversion/colaboradoras/producto_0002)

- Izena:** EEE-IDAE-ren enpresentzako laguntzak eta diru-laguntzak.
- Kontzeptua:** Eraginkortasun energetikoa, auditoria energetikoak, energia berriztagarrien instalazioak, mugikortasun iraunkorreko azterketak eta planak, ibilgailu eraginkorrak eta aurreztearekin, eraginkortasun energetikoarekin eta energia berriztagarriekin zerikusia duen oro.
- Norentzat:** Enpresentzat.
- Kopurua:** % 75era arteko finantzazioa.
- Adibidez:** Argiak aldatu, ibilgailu eraginkorrak erosi, auditoria energetikoak, etab.

<http://www.eve.es/web/Empresas/Ayudas-%281%29.aspx?lang=eu-ES>

- Izena:** Ausartu. Araban enpresa berriak sustatzeko eta sortzeko.
- Kontzeptua:** Enpresa berriak sortu, sortu berriak babestu, daudenak dibertsifikatu (enpresa egitura berriak sortuta) eta Arabako Lurralde Historikoan enpresa berriak ezarri. Berrikuntzako elementuren bat sartzen duten proiektuak: Produktua, ekoizpen prozesuak, antolakuntza, marketinga eta merkatuak, etab.
- Norentzat:** Proiektu berritzaileak dituzten sustatzaile eta enpresentzat, nekazaritza eta abeltzaintzako sektorea izan ezik.
- Kopurua:** Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren % 50, gehienez 20.000 € (10.000 € inbertsioan).  
Proiektuari diruz lagundu ahal izateko, laguntza horren zenbatekoa gutxienez 300 eurokoa izango da.  
Beste laguntzekin bateragarria da gehienez % 80ra arte, «minimis» arauak errespetatuz gero.
- Adibidez:** Araban instalatu edo jarduera berritzailea sortu, jarduera edo ekipamenduetarako inbertsioa behar duena.

[http://www.alava.net/cs/Satellite?c=DPA\\_ProgPromocion\\_FA&cid=1193046525671&language=eu\\_ES&pageid=1193045619494&pagename=DiputacionAlava%2FDPA\\_ProgPromocion\\_FA%2FDPA\\_programaPromocion](http://www.alava.net/cs/Satellite?c=DPA_ProgPromocion_FA&cid=1193046525671&language=eu_ES&pageid=1193045619494&pagename=DiputacionAlava%2FDPA_ProgPromocion_FA%2FDPA_programaPromocion)



- Izena:** Saiatu. ETE-en berrikuntzarako eta lehiakortasuna hobetzeko.
- Kontzeptua:** Enpresan berrikuntzaren, nazioartekotzearen eta ingurumenaren arloan lehiakortasuna hobetzea eta berrikuntza sustatzeko proiektuak edota ekintzak egitea.
- Norentzat:** (INGURUMENA) ingurumen diagnostikoak eta azterketak egin, ekoeraginkortasun edo ekoberrikuntzakoak eta hobekuntzak eraginkortasun energetikoan.
- Kopurua:** Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren % 30 gehienez, ingurumen diagnostikoen kasuan izan ezik: % 80 gehienez, 5.000 euro gehienez.
- Adibidez:** Ingurumen diagnosiak eta azterlanak, ekoeraginkortasunekoak eta/edo ekoberrikuntzari buruzkoak eta energia eraginkortasuneko hobekuntzak.

[http://www.alava.net/cs/Satellite?c=DPA\\_ProgPromocion\\_FA&cid=1193046524315&language=eu\\_ES&pageid=1193045619494&pagename=DiputacionAlava%2FDPA\\_ProgPromocion\\_FA%2FDPA\\_programaPromocion](http://www.alava.net/cs/Satellite?c=DPA_ProgPromocion_FA&cid=1193046524315&language=eu_ES&pageid=1193045619494&pagename=DiputacionAlava%2FDPA_ProgPromocion_FA%2FDPA_programaPromocion)

- Izena:** Ekoizpen ekipamenduen modernizazioa.
- Kontzeptua:** Dauden industri makinaren ordez beste bat jarri, ustiaketa ekonomikoko ekoizpen prozesuan eragina izango duena eta ordezkorearen funtzio berak egingo dituena, gutxienez.
- Norentzat:** 50 langile baino gutxiagoko INDUSTRIA enpresak.
- Kopurua:** Erosten kreditatutako gastuen % 20, gehienez 18.000 euro/erositako makina. Enpresa eta urteko gehieneko laguntza 40.000 eurokoa da.
- Adibidez:** Ekoizteko ekipamenduak berritu eta ingurumena gehiago errespetatzen dutenak jarri.

<http://www.spri.es/aNS/web/es/solicitudes/index.jsp?nId=17>

Beste esteka interesgarri batzuk:

[http://www.mma.es/portal/secciones/ayudas\\_subvenciones/](http://www.mma.es/portal/secciones/ayudas_subvenciones/)

<http://www.nasdap.ejgv.euskadi.net/r50-2397/eu/>

<http://www.spri.es/aNS/web/eu/laguntzak/index.jsp>

## 4. Informazioa eta harremanak

### **Negoio berriak sortzeko-finkatzeko aholkularitza eta enpresak babestea**

Amurrio Bidean, Amurrioko tokiko garapenerako agentzia  
945 891 721

<http://www.amurriobidean.org>

### **Jarduera eta irekitze-lizentzia**

Amurrioko Udala  
945 891 161

<http://www.amurrio.org>

### **Hiri hondakinekin pareka daitezkeen hondakinen kudeaketa**

Amurrioko Udala  
945 891 161  
Amurrioko Garbigunea  
606 358 947

<http://www.amurrio.org>

### **Hondakin geldo eta arriskutsuen kudeaketa Ingurumen Sailburuordetza Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza**

945 019 905

<http://www.ej-gv.net>

### **Uren kudeaketa**

URA, Uraren Euskal Agentzia  
944 033 800

<http://www.uragentzia.euskadi.net>

### **Iparraldeko Ur Konfederazioa**

944 411 700

<http://www.chcantabrico.es/index.php?lang=eu>

### **Kutsatuta egon daitezkeen lurren kudeaketa**

Ingurumen Sailburuordetza Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza  
945 019 905

<http://www.ej-gv.net>

### **Energia berriztagarrien eta energiarentzako diru-laguntzen inguruko informazio gehiago lortzea**

EVE - 944 035 600

[www.eve.es](http://www.eve.es)

### **Atmosfera kutsa dezaketen jardueren kudeaketa**

Ingurumen Sailburuordetza Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza  
945 019 905

<http://www.ej-gv.net>

### **Hondakinei, lurzoruei, teknologia berriei, ingurumen ziurtagiriei, diru-laguntzei... buruzko informazio gehiago lortzea**

IHOBE - 944 230 743

<http://www.ihobe.net>